Abadiño
Elizateko Udala

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

**2023KO APIRILAREN 26AN ABADIÑOKO ELIZATEKO UDALAK ETA URAREN EUSKAL AGENTZIAK (URA) ELKARREKIN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN GEHIGARRIA, ABADIÑOKO UDALERRIA SARRIA ETA IBAIZABAL IBAIEN UHOLDEEATIK BABESTEKO PROIEKTUAREN 1. FASEKO OBRAK EGITEKO.**

**ADENDA AL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO EL 26 DE ABRIL DE 2023 ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE ABADIÑO / ABADIÑO ELIZATEKO UDALA Y LA AGENCIA VASCA DEL AGUA / URAREN EUSKAL AGENTZIA (URA) PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE LA FASE 1 DEL PROYECTO DE DEFENSA CONTRA INUNDACIONES DE LOS RÍOS SARRIA E IBAIZABAL A SU PASO POR EL T.M. DE ABADIÑO.**

Bilbon, sinadura elektronikoaren egunean

En Bilbao, en la fecha de la firma electrónica

## ELKARTURIK

## REUNIDOS

Batetik, **MIKEL URRUTIA GALAN**, Abadiñoko Alkate-Udalburua.

De una parte, **MIKEL URRUTIA GALAN**, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Abadiño.

Eta bestetik, **ASIER LÓPEZ ETXEBARRIA**, URA-Uraren Euskal Agentziako Zuzendari Nagusia.

Y de la otra, **ASIER LÓPEZ ETXEBARRIA**, Director General de la Agencia Vasca del Agua (URA).

## PARTE HARTZEN DUTE

## INTERVIENEN

Lehenengoak, baliatuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak aitortzen dion Udalaren legezko ordezkaritzarako ahalmena, eta gaitua izan ondoren 2025eko otsailaren 25eko Udal Osoko Bilkuraren erabakiz.

El primero de ellos, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, facultado en virtud de acuerdo plenario municipal de 25 de febrero de 2025.

Bigarrenak, Uraren Euskal Agentziako Zuzendari Nagusi gisa eta bere Estatutuetako 10.3.f) artikuluak ezagutzen dizkion ahalmenen arabera.

El segundo, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 10.3.f) de sus Estatutos.

Parte-hartzaile biek ezagutzen diote elkarri akordio hau sinatzeko legezko gaitasuna, eta, horretarako, ondokoa

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para adoptar el siguiente acuerdo y, a tal efecto,

Sinatzaile / Firmante: MIKEL URRUTIA GALAN    Data: 2025-04-11 07:08:10(UTC)    Fecha: 11/04/2025 07:08:10 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABADIÑOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO    Data: 2025-04-11 07:24:15(UTC)    Fecha: 11/04/2025 07:24:15 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7b344e76-5872-4744-b38d-5a072bb6c8e1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Abadiño
Elizateko Udala

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

## ADIERAZTEN DUTE:

### I

2023ko apirilaren 26an lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen Abadiñoko Udalaren eta Uraren Euskal Agentziaren artean, Abadiñoko udal-mugarteko urperagarritasuna gutxitzeko lanak egiteko eta Abadiñoko HAPOa onartzeko.

### II

Abadiñoko HAPOa hasieraz onartua izan ondoren (2019ko maiatzean) —une honetan tramitatzen ari da—, proiektu hau lortu zen: “Abadiñoko herria Ibaizabal ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua” (2022ko azaroa), zeinaren bitartez aurreikusten baita etorkizuneko urperagaritasuna murriztea gaur egungo AASSetan (Traña-Matienako iparraldean), inguru bat non nabarmen gutxitu den jarduera ekonomikoa.

### III

Aurreikuspen horiek aprobetxatuz, Abadiñoko Udalak proposatzen du etxebizitzen hazkundea mugitzea SUS-R-1-ASTOLA eta PER-R-3-ASTOLA guneetatik Traña-Matienako iparraldera (AASSetako UI-2 eremura), sektore honentzat aurreikusten den balizko bialitate eta garapenagaitik. Behin burutu ondoren urperagarritasunaren kontrako aurreikusita dauden 1. Faseko lanak, herriaren erdian dagoen industria-gune bat bizitegi-gune bihurtuko litzateke.

Planteamendu berri horrek, gehi hasierako hitzarmena sinatu zen ezkeroztik uholdeen aurkako babes proiektuaren 1. Faserako aurreikusitako obren inguruan gertatutako

## EXPONEN

### I

Que con fecha 26 de abril de 2023, se suscribió un Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Abadiño y Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua, para la realización de las obras de reducción de la inundabilidad del término municipal de Abadiño y aprobación de su PGOU.

### II

Que tras la Aprobación Inicial del PGOU de Abadiño (mayo de 2019), actualmente en tramitación, se ha obtenido el “Proyecto de defensa contra las inundaciones del río Ibaizabal a su paso por el T.M. de Abadiño” (noviembre de 2022), cuya ejecución prevé la futura reducción de la inundabilidad del ámbito **UI-2** de las actuales NNSS (Norte de Traña-Matiena), zona en la que su actividad económica ha descendido considerablemente.

### III

Que aprovechando estas previsiones, el Ayuntamiento de Abadiño plantea ahora un desplazamiento del crecimiento residencial de Astola, concretamente de las áreas SUS-R-1-ASTOLA y PER-R-3-ASTOLA, a la zona norte de Traña-Matiena (ámbito de la UI-2 de las NNSS), por la previsión de la posible viabilidad y desarrollo de este Sector, una vez ejecutadas las obras previstas en la Fase 1 de defensa contra la inundabilidad, a fin de transformar una zona industrial sita en el centro del pueblo, transformándola en una nueva zona residencial.

Este nuevo planteamiento, unido al incremento presupuestario producido por el transcurso del tiempo desde la firma del Convenio inicial en lo relativo a la ejecución de las obras previstas para



Sinatzaile / Firmante: MIKEL URRUTIA GALAN Data: 2025-04-11 07:08:10(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:08:10 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABADIÑOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO Data: 2025-04-11 07:24:15(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:24:15 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7b344e76-5872-4744-b38d-5a072bb6c8e1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

aurrekontu-gehikuntzak, ezinbesteko bihurtzen dute hainbat zehaztapen eta doikuntza egitea hasieran adostutako zenbatekoen inguruan.

la Fase 1 del proyecto de defensa contra las inundaciones, exigen una serie de concreciones y ajustes en los importes en principio acordados.

**IV**

Aldaketa horiek egiteko, gainera, beharrezkoa da berriro hasierako onarpena ematea HAPOren berrikuspenari, dokumentua jendaurrean jarriz, interesdunei entzute-aldi bat eskainiz eta espedientea dagokien administrazio sektorialetara bialduz.

**IV**

Que dichos cambios exigen, además, el sometimiento de la revisión del PGOU a una nueva aprobación inicial, con la apertura del preceptivo trámite de información pública, audiencia a personas interesadas y remisión del expediente a las administraciones sectoriales correspondientes.

**V**

Erakunde biek babesten dituzte jatorrizko hitzarmenaren izaera eta helburuak, zein diren: Abadiñoko herria urperagarritasun arriskuetatik babestea, desblokeatzea Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspena, hainbat urtetatik hona egin nahi den bezala, eta segurtatzea URAren inbertsioaren itzulera, derrigorrez egin beharreko lan hidraulikoak direlako, nahiz eta Abadiñoko Udalak proposatu dituen aldaketek —etxebizitza-hazkundea mugitzea SUS-R-1-ASTOLA eta PER-R-3-ASTOLA guneetatik Traña-Matienako iparraldera (AASSetako UI-2 eremura— eta 1. Faseko lanen aurrekontuan gertatu den gorakadak ezinbestekoa egiten duten hitzarmenaren konpromiso ekonomikoak egokitzea zeren eremu horretan posible egingo diren garapen berriek hirigintza-karga desberdinak izango baitituzte eta onura ezberdina jasoko baitute egingo diren obretatik.

**V**

Que ambas instituciones refrendan el espíritu y objetivos del convenio primigenio: la protección de la población frente a los riesgos de inundación del municipio de Abadiño, el desbloqueo de la revisión del Plan General de Ordenación Urbana pretendida hace años, así como el aseguramiento del retorno de la inversión acometida por URA, debido al carácter ineludible de la actuación hidráulica que se pretende, si bien los cambios planteados por el Ayuntamiento de Abadiño en relación con el desplazamiento del crecimiento residencial de Astola, SUS-R-1-ASTOLA y PER-R-3-ASTOLA, a la zona norte de Traña-Matiena (ámbito de la UI-2 de las NNSS) y el incremento presupuestario de las obras de ejecución de la Fase 1 requieren algunas adaptaciones en los compromisos económicos del convenio, toda vez que los nuevos desarrollos que se posibilitarían en este ámbito contarán con diferentes cargas urbanísticas y se verán beneficiados de diferente manera por las obras que se van a acometer.



**VI**

Aurrekoa gogoan, alde biek erabateko borondatea agertzen dute elkarrekin koordinatzeko bien interes komunak, bakoitzak bere eskumenen barruan jokatuz kooperazio,

**VI**

Que, a tal efecto, muestran voluntad inequívoca de coordinar los intereses comunes desde el punto de vista de sus respectivas competencias, atendiendo a los criterios de cooperación y

Sinatzaile / Firmante: MIKEL URRUTIA GALAN Data: 2025-04-11 07:08:10(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:08:10 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABADIÑOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO Data: 2025-04-11 07:24:15(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:24:15 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7b344e76-5872-4744-b38d-5a072bb6c8e1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

eraginkortasun eta ekonomia goreneko irizpideekin, eta tresnatzat erabiliz jarraian zerrendatzen diren aginduek Administrazio Publikoei aitortzen dizkieten ahalmenak:

máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones públicas resultan de los siguientes preceptos:

1. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoak; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 57. Artikulua; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzera datorren apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 111. Artikulua; eta azaroaren 28ko 178/2023 Dekretuaren 10.3 f) artikulua, zeinaren bidez onartzen baitira Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak, hitzarmenei dagokienez.

**1.** Artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público, artículo 57 de la LBRL y artículo 111 del RDLeg 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, y art. 10.3 f) del Decreto 178/2023, de 28 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos de la Agencia Vasca del Agua, en relación con los convenios.

**2.** Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua, kudeaketa publiko eraginkor bati buruzkoa, administrazio-arloan bikoiztasunak saihestu eta ezabatzeko.

**2.** Artículo 100 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de instituciones locales de Euskadi, sobre una eficiente gestión pública con la finalidad de evitar y eliminar duplicidades administrativas.



**3.** Estatuko Uren Legearen 128. artikulua; Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko Legearen 28. artikulua; eta Kantauri Ekialdeko 2022-2027ko Plan Hidrologikoaren arau-eranskina, hiri-eremuetako obren finantzaketari dagokionez.

**3.** Artículos 128 de la Ley de Aguas estatal, 28 de la Ley del Plan Hidrológico Nacional y 36 del anejo normativo del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental 2022-2027, en relación con la financiación de obras hidráulicas en zonas urbanas.

## VII

Ikusirik aurreko guztia, esandako lankidetza-hitzarmena garatzen eta osatzen dute, **uholdeak prebenitzeko obren 1. Faseari dagokionez,** indarrean mantentzen dituztelarik gainerako klausulak obren beste bi faseei dagokienez, oinarritzat harturik ondoko

## VII

Que a la vista de todo cuanto antecede, desarrollan y completan el referido convenio de colaboración **en lo relativo a la Fase 1 de ejecución de las citadas obras de prevención de inundaciones**, manteniendo vigentes e intactas el resto de cláusulas en lo que se refiere a las otras 2 fases de ejecución de las obras, con arreglo a las siguientes

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

**LEHENENGOA.-**

**PRIMERA.**

Sinatzaile / Firmante: MIKEL URRUTIA GALAN Data: 2025-04-11 07:08:10(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:08:10 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABADIÑOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO Data: 2025-04-11 07:24:15(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:24:15 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da./ La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7b344e76-5872-4744-b38d-5a072bb6c8e1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Eguneratzen da obren 1. Faseari edo LEHEN ZATIARI (Sarria-bateragunea) dagokion aurrekontuaren zenbatekoa, eta kopuru honetan finkatzen da: 2.064.932€ (BI MILIOI HIRUROGEITA LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO).

**BIGARRENA.**

Jatorrizko Hitzarmeneko HIRUGARREN klausulak aipatzen zituen obren 1. Fase honen finantzaketari dagokionez, URAk bere konpromisoari eusten dio fase horri dagokion zenbateko osoa ordaintzeko, aurreko klausulan jasotako gehikuntza gorabehera, barne harturik proiektuan izan daitezkeen aldaketak baldin aldaketa horiek hasieran aurreikusi gabeko akats material edo partida baten ondorio badira. Aldiz, ez ditu ordainduko Abadiñoko Udalak bere borondatez eta gogoz eska ditzakeen gauzak, proiektu aldaketak zein gehikuntzak, horiek Abadiñoko Udalak ordaindu beharko baititu, halakorik balego.

Uraren Euskal Agentziak konprometitzen duen gehieneko ekarpena 2.064.927,32 eurokoa da (BI MILIOI HIRUROGEITA LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO), BEZ barne, eta 23180112 kontutik finantzatuko da Uraren Euskal Agentziaren aurrekontuaren gain.

**HIRUGARRENA.**

1. Faseko nahitaezko desjabetzeak finantzatzeari dagokionez, ikusirik desadostasunak daudela Jatorrizko Hitzarmeneko LAUGARREN klausulako b) idatz-zatia ulertzeko, argitzen da uholdeei aurre egiteko lanen proiektuko 1. Faseko desjabetze-balio justuak Abadiñoko Udalak ordaindu beharko dituela oso-osorik, eta URAren esku jarriko dituela lehen fase horretako obrek ukitutako lur-arlo guztiak, Uraren Euskal Agentziak izan dezan modua lanak egiteko proiektuaren arabera.

Se actualiza el importe del presupuesto relativo a la Fase 1 o PRIMER TRAMO de obras (Sarria-confluencia) estableciéndose en la cantidad de 2.064.927,32 € (DOS MILLONES SESENTA Y CUATRO MIL NOVECIENTOS VEINTISIETE CON TREINTA Y DOS EUROS).

**SEGUNDA.**

En lo que respecta a la financiación de esta Fase 1 de las obras a la que aludía la cláusula TERCERA del Convenio inicial, URA mantiene su compromiso de pago del importe íntegro correspondiente a esta fase, a pesar del incremento reflejado en la cláusula anterior, incluidas las posibles modificaciones en el proyecto, si estas se deben a un error material o partida no prevista inicialmente. No abonará, por el contrario, las posibles peticiones, modificaciones o añadidos al proyecto que pudiera solicitar el Ayuntamiento de Abadiño por su propia voluntad o deseo, quien las debiera abonar, en su caso.

El importe previsto como aportación máxima que compromete la Agencia Vasca del Agua es de 2.064.927,32 € (DOS MILLONES SESENTA Y CUATRO MIL NOVECIENTOS VEINTISIETE CON TREINTA Y DOS EUROS), IVA incluido, que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia, imputable a la cuenta 23180112.

**TERCERA.**

En lo que a la financiación de las expropiaciones forzosas de la Fase 1 respecta, ante las diferencias interpretativas de la cláusula CUARTA, letra b) del Convenio primigenio, se aclara que el pago de los justiprecios expropiatorios de la Fase 1 del proyecto de obras para la defensa contra las inundaciones, le corresponderá financiarlo íntegramente al Ayuntamiento de Abadiño, de forma que ponga a disposición de URA la totalidad de los terrenos afectados por las obras de esta Fase primera, con el fin de que la Agencia Vasca del Agua



Sinatzaile / Firmante: MIKEL URRUTIA GALAN Data: 2025-04-11 07:08:10(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:08:10 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABADIÑOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO Data: 2025-04-11 07:24:15(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:24:15 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7b344e76-5872-4744-b38d-5a072bb6c8e1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Abadiño
Elizateko Udala

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua



pueda acometer la ejecución de las obras de conformidad con el proyecto.

**LAUGARRENA.**

Proiektatu eta burutuko diren obra hidraulikoak finantzatzeko Plan Orokorraren eta garapen tresnen kudeaketatik lortuko diren diru-sarrerei dagokienez, diru-sarrera horien %100 Abadiñoko Udalarentzat izango da, eta Udalak osorik erabiliko ditu 2. Fasea (Astolako zatia) eta 3. Fasea (Sarria-Trañapadura-Lebario zatia) egiteko.

**CUARTA.**

En lo que a la obtención de los ingresos que correspondan por la gestión del Plan General e instrumentos de desarrollo, en concepto de financiación de las obras hidráulicas proyectadas y que se ejecuten, el Ayuntamiento de Abadiño obtendrá el 100% de los ingresos y los destinará íntegramente a la ejecución de las fases 2 (Tramo Astola) y 3 (Tramo Sarria-Trañapadura-Lebario).

**BOSGARRENA.**

Uholdeetatik babesteko obrak egiteko lortzen diren dirulaguntzak kudeatuak izango dira kontuan harturik zein kontzeptu subentzionatzen den eta nork/nortzuk ordaintzen duen/duten.
Lehen fase honetan, baldin dirulaguntzaren helburua bada uholdeetatik babesteko Agentziak finantzatu duen obra, dirulaguntzaren %100 Agentziarentzat izango da (obraren %100 finantzatzen duen administrazioa izaki). Aldiz, baldin dirulaguntzaren helburua lur-desjabetzeak badira, dirulaguntzaren %100 ABADIÑOKO UDALArentzat izango da (desjabetzeen %100 finantzatzen duen administrazioa izaki).

**QUINTA.**

Las subvenciones que se obtengan para las ejecuciones de las obras de defensa de inundaciones se gestionarán en función del concepto que se subvenciona y quién/es lo paga/n.
En esta primera fase, si el objeto de la subvención es la obra de defensa de inundaciones financiada por la Agencia, el 100% de la subvención le corresponderá a ésta (administración que financia el 100% de la obra). En cambio, si el objeto de la subvención son las expropiaciones de los terrenos, el 100% de la subvención irá destinado al AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO (administración que financia el 100% de las expropiaciones).

Eta aurreko guztiarekin ados daudelako seinalez, alde biek sinatzen dute dokumentu hau, bi aletan, sinadura elektronikoan adierazitako egunean.

Y en prueba de conformidad, firman los comparecientes la presente por duplicado, en la fecha indicada en la firma electrónica.

**ABADIÑOKO ELIZATEKO**
**ALKATE-UDALBURUAK**
**ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO**
**DE LA ANTEIGLESIA DE ABADIÑO**

**MIKEL URRUTIA GALÁN**

**URAREN EUSKAL AGENTZIAKO**
**ZUZENDARI NAGUSIAK**
**EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA**
**VASCA DEL AGUA (URA)**

**ASIER LOPEZ ETXEBARRIA**

ASIER LOPEZ ETXEBARRIA - 20201447H
Firmado digitalmente por ASIER LOPEZ ETXEBARRIA - 20201447H
Fecha: 2025.04.22 14:03:41 +02'00'

Sinatzaile / Firmante: MIKEL URRUTIA GALAN Data: 2025-04-11 07:08:10(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:08:10 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABADIÑOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO Data: 2025-04-11 07:24:15(UTC) Fecha: 11/04/2025 07:24:15 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {7b344e76-5872-4744-b38d-5a072bb6c8e1} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.